

SANTA TERESAREN EZAGUTZA ETA ERAGINA

Nekez eskaini daiteke lerro labur batzutan bildurik Teresak izandako diztira hain zabala eta hain unibertsala. Alabaina aha- leginak egingo ditugu Santa honek zenbait pertsonagan eta erakundeengan izandako eragin handiaren berri ematen, bera- ren espiritualitateak gaur egungo Elizan duen presentzia zabal eta sakoneraz jabetzeko.

Hala ere, Lisieuxeko Agriren Artxibotik jasotako fitxa labu- rrak baino ez ditut aurkeztuko. Guztiak batera bilduta eskai- nik, izan duen eraginaren eta daukan gaurkotasunaren ikuspe- gi zabala jasoko dugu.

I. PERTSONENGAN

A. SANTUAK

1. S.Rafael Kalinowski, karmeldarra (1835-1907)

Juan Paulo IIak 1991.ean kanonizatua. Guraso poloniarrek izan zituen hau Vilnius-en (Lituania) jaiotzen; armada errusa- rreko ofiziala zelarik, poloniarrek 1863ean tsarren agintaritze- ren aurka eginiko matxinadan parte hartu zuen; atxikotua izan ondoren, Siberiara deportatu zuten; 1874an askatua izan eta,

Frantzian egotaldia egin ostean, karmeldar egin zen Austrian, eta 1882an sagaratu zuten apaiz. Aitortza eta arimako zuzendaritza apostoluzan jardun zuen, era berean, kristauen elkartasunaren alde eta karmeldarrak berriro Polonian ezartzeko ahaleginetan arituz. 1902an gutun bat idatzi zuen Lisieuxera, bertan honako hau dioela:

"Orain dela zortzi egun, arima itsaso oldaritsu bateko olatuek lebertuta nuela sartu nintzen nire gelan, eta ez nekien non aurkitu babeslekua. Eta, bara non jarri nituen begiak ahizparen (Teresa) bizitza zekarren frantsesezko liburuan... Liburua ireki, eta Jesusi loturiko bihotz baten babeslekuan, "Maitasunez bizi" garrean babestu nintzen. Orduan nire denboralea baretu, eta berriro etorri zitzaidan barealdia esanezinezko zer batek betetzen ninduela oso-osoan... Kantika hura salbamen-untziaren antzekoa izan nuen. Ahizpa maitagarriak gidarizarako eskaini zidan bere burua"...

2. S. Maximiliano Kolbe, o.f.m.conv. (1894-1941)

Juan Paulo II.ak 1988an kanonizatutako frantziskotarra. Zdunska-Wolan jaio zen; ikasketak Erroman egin, eta 1918an sagaratu. Alemaniar gudataldeek Polonian atxilotu ondoren Auschwitz-eko kontzentrazio esparrura eraman zuten, eta bertan familia-aita baten ordezkari izan zen bizitza. Erroman egin zituen urteetan egunero irakurtzen zuen Teresaren autobiografia (*Arima baten historia*) eta meza bakoitzean kanonizatua izan zedin otoitz egiteko asmo sendoa hartu zuen. 1930an Lisieuxera joan zen erromes gisa. Naziek harrapatu baino egun batzuk lehenago Teresari buruz mintzatu zen, Teresak maitasunari eta buru-uzteari buruz zekartzan ideiak errepikatuz.

3. S. Teresa Jesusena (Andesekoa), karmeldarra (1900-1919)

1987an kanonizatua. Txileko lehen santa, eta, era berean, Amerikako lehen santa karmeldarra. Oso eragin handia izan zuen Teresa Lisieuxkoak beraren bokazio-bilakaeran.

B. DOHATSUAK

4. **Daniel Brottier dohatsua (1876-1936)**

Kaperau heroikoa munduko 1. gerran... Bere apostolutza Santa Teresa Lisieuxkoaren babespean jarri zuen. Honako hau idatzi zuen:

"Teresa Elizaren zeru gainean agertu izan den santarik bandedietarikoa da... Ez dut uste Teresak igarleen aintzan parte duela esatean gebtegiertarik diodanik; bai, hitz horti,agian, ez da guztiz zebatza, baina uste dut berak bokazio goitiarra, jainkotiarrak hartu zuela, Jainkoaren "bozemailea" izan zela, hau da, Jainkoak gure garatetarako oso-osoa egokitutako doktrinamezuz jarri zuela"...

5. **Hirutasunaren Isabel dohatsua, karmeldarra (1889-1906)**

Dijon-en jaio zen honek, gaztetatik jaso zuen Karmelen kontenplaziozko bizimodua egiteko deia. *"Arima baten historia"* agertu herri zela, Isabelek, hain zuzen ere bokazioari buruzko erabakia hartzeaz zegoela irakurri zuen, eta Teresaren idazkiak kemena eman zion.

6. **Tito Brandsma dohatsua, karmeldarra 81881-1942)**

Holandar hau Utrecht-eko artzapezpikutegiko bozemailea dugu. Batez ere 1938tik aurrera holandar apezpikuekin bat eginik gogor salatu zuen nazismoaren basakeria; Gestapok 1942an atxikotua izan ondoren, Dachauko kontzentrazio esparrura eraman zuten, eta bertan martirizatu. Santa Teresa Lisieuxkoaren espirituzko bideari jarraitu zion...

7. **Gurutzeko Teresa Benedikta doatsua, karmeldarra (1891-1942)**

Breslau-n, familia judutar batean jaiotako honek utzi egin zuen sinesmena, filosofo jainkogabea izatera helduz; hala ere,

egiaren bila diharduen. Bila ibili gabe, bide batez edo zoriz Avilako Santa Teresaren Autobiografia irakurtzean begiak ireki zitzaizkion Jesusen argira... Kristau bidea hartu ondoren, karmeldar egin zen. Polizia alemaniarrek atxilotu, eta Auschwitzeko kontzentrazio esparrura bidali zuten. Juan Paulo II.ak dohatsu aitortu zuen "martiria" deituz; hilabete batzuk barru kanonizatua izango da.

Handia izan zen Santa Teresak beragan izan zuen eragina. Edith-ek, karmeldar sartu aurrean, hurrengo hau idatzi zion adiskide bati Lisieuxeko Santaren idazki autobiografikoari buruz:

"Barnean, Jainkoaren maitasunak sakon-sakoneraino oso-osoan blaitutako giza bizitza bakan baten aurrean nagoela sentitu izan dut. Ez dut honelako beste zer handiagorik ezagutzen; honelako zertxo bat nahi nuke, ahal izango litzatekeen adinean, nire bizitzarako eta inguruan ditudan guztien bizitzetarako".

8. Dina Belanger dohatsua, Jesus-Mariaren erlijiosoa (1897-1929)

Quebec-en jaioa. Teresak eragin handia egin zion beraren espirituzko bizitzan, batez ere 1923. urterarte. Dina dohatsuak idazten zuen:

"Behin batean, irakasleak bi aintzandari eman zizkidan: Santa Zezilia eta Teresa Jesus Haurraren dohatsua... Teresa maitasun eta konfidantzazko bidetik gidatzeko... Teresak konfidantzaren lorategiko ateak ireki dizkit. Burua Jainkoarengan konfidantzan uztearen fruituak gozatu ditut"...

9. Faustina Kowalska dohatsua (1905-1938)

Poloniar honek karmeldar izan nahi zuen, baina, osasun ezaren ondorioz ezin izan zuen; Urrikalmenduko G.J.aren Senidetxoen Kongregazioan sartu zen. Santa Teresaren idazkiak irakurri zituen eta eragin on ugari egin zioten. Jainkoak aparteko dohainak eman zizkion.

10. Guadalajarako karmeldar dohatsuak (+1935)

Erljioaren aurkako 1935eko jazarpenean bizitza eman zuten karmeldarrak.

C. BENERAGARRIAK

11. Zelia Guérin (1831-1877) eta Luis Martin (1823-1894).

Santa Teresaren gurasoak dira.

12. A. Juan Bizente, karmeldarra (1862-1943)

Berrizko (Bizkaia) semea; apostolu eta misiolari handia; "*Obra Máxima*" misio-aldizkariaren sortzailea... Bizitzako azken urteetan, gaixorik eta ezer egiteko gauza ez zela oinazealdian arimen salbamenerako eskaintzen zituen bere saminak "Teresa txikiaren antzera".

13. Edouard-Jean Poppe (1899-1924)

Apaiz belgiarra. 1920an "Eukaristi gurutzada" sortu zuen. 1920ko irailean Lisieuxen egon ondoren, hurrengo hau idatzi zuen: "*Bertan jaso ditut nire bizitzako graziazirik handienak*".

14. Maravillas Jesusena, karmeldarra (1891-1974)

Hainbat Karmel eraiki zituen madrildarra... Teresa Lisieuxkoaren idazkiak irakurri ondoren, Santaren espiritualitatea irakasten zien nobizei.

D. JAINKOAREN ZERBITZARIAK

15. P. Marie-Joseph Lagrange, domingotarra (1855-1938)

Jerusalemeko Biblia Eskola (1890) eraiki zuen exegeta ospetsua... Teresa miretsi eta maitatzen zuen... Honela zioen:

"Bizi izan zuen maitasun jainkotiarraren argitasun izugarrian, bere burua baina txiki ikusten zuenez, norberekeriarik txikinaz mintza zitekeen bere izaeraz. Ikasbide hau beste santuek baino askoz argiago ematen digu, haur mainatiaren antzeko buru-uzteari buruz irakatsiz".

16. *Colomba Marmion, benediktarra (1858-1923)*

Maredsous-eko (Belgika) abata; Mercier kardinalaren espiritu-aholkularia... Teresak Maitasunari buruz zuen espiritualitateaz idatzi zion Aita Santuari.

17. *P. Romualdo Santa Catalinarena, karmeldarra (1866-1936)*

Santa Teresa Lisieuxkoaren sustatzailea, Espainian eta Ameriketan. Kataluniako karmeldarren bererarikuntzan parte hartu zuen.

18. *Rafael Rossi kardinala (1876-1948)*

Pisako semea. Santa Teresa Lisieuxkoaren zaletua izanik, Jon Gurutzekoaren benetako ikasletzat aurkeztea nahi izaten zuen.

19. *A. Marie-Eugène de l'Enfant-Jésus, karmeldarra (1894-1967)*

Bizitzako Andra Mariaren Institutuaren Eratzailea. "Jainkoa ikusi nahi dut" liburuaren idazlea. 1932an honako hau idatzi zuen:

"Santa Teresa Jesus Haurrarena aldi modernoetako apostolu gisa ageri da, eta hori ez, baina zuzen ere, idazkiengatik bere bizitza sakonagatik eta kristau herriari ekarri zion argitasunagatik baino... Arrazoi handiz eskatu izan du orainsu berarentzat Aita Desbuquois-ek gure ama Santa Teresari (Avilakoari) ukatu izan zaion Eliz Irakaslearen izendapena"...

20. *A. Jacques de Jésus, karmeldarra (1900-1945)*

Haur judetarrak lagundu eta ezkutatzeagatik Mauthausenengo kontzentrazio esparrura eramane zuten; Linz askatu eta

hilabete barru hil zen (Austrian) jasandako oinazeen ondorioz.

21. *Marta Robin (1902-1981)*

Estigmak izan zituen emakumea; Jesusen pasioa bizi izan zuen... Santa Teresaren eragina jaso zuen 1925etik aurrera. Honako hau esaten zuen: "*Teresa Jesus Haurrarena maite dut. Ikuskarietan ezagutu dut. Heriotzaren ondoren inoiz baino eraginkorragoa izango dela ulertarazi dit*".

22. *Magdalena Delbrel (1904-1964)*

Frantziar emakume laiko honek karmeldar izatea nahi izan zuen. Santa Teresa Lisieuxkoaren espiritualitatea bizi izan zuen.

23. *Benigno S. Teresa Jesus Haurrarena, karmeldarra (1909-1937)*

Dohatsu aitortua izateko bidean. Santaren jarraitzaile sutsua izan zen, txikien zein txiroen antzera buru-uztea eta itxaropena apaltasunez eta poztasunez bizi izan zituela.

24. *Marcel Van anaia (1928-1959)*

Vietnamdarra, ustegabeen aurkitu zuen Teresa, eta Teresari zion maitasunak heriotzeraino iraun zion. Komunistek, beste 2.000 atxiloturekin batera 15 urtetan kontzentrazio esparruan bizitzera kondenatua izan ondoren, bost hilabete egin zituen bertan. Kartzelan gaixotu eta 1959an hil zen.

25. *Jacques Fesch (1930-1957)*

Gizon ezkondu gaztea; 1954an polizia bat hil zuen Parisen; epaitu eta kondenatua izan ostean, urriaren lehen moztu zioten burua. Presondegian ezagutu zuen Teresa; federa itzuli eta idazki miragarriak idatzi zituen, Jainkoaren errukian zuen itxaropena eta fedearen poztasuna aditzera emanez.

E. ELIZAKO HIERARKIAREN ORDEZKARIAK

Kardinalak

26. Anastasio Alberto Balletero kardinala, karmeldarra (1913-)

Teresiar Karmel Ordenako Jenerala eta, gero, Turringo artzapezpikua. Teologia espiritualari buruzko hainbat liburu eta idazkiren idazlea. Honako hau idatzi zuen:

"Teresa Jesus Haurrarenaren esperientzia benetako ebanjelio-gertakaria da, bihotzean zeraman ebanjelioarena; janari ia bakartzat zuen ebanjelioarena"...

27. Yves Congar kardinala, domingotarra (1904-1995)

XX. mendeko teologian izugarritzko eragipena izan duena. Hainbat libururen idazlea dugu. Honako hau idatzi zuen:

"Atomoaren mendeko atarian Jainkoaren eskuak piztu dituen argidorreak Teresa Lisieuxeko eta Charles Foucauld deitzen dira"... "Niretzat, ez dago zalantzarik, Teresa Jesus Haurrarena Eliz Irakasle izendatua izan daiteke..."

28. Jean Daniélou kardinala, jesuita (1905-1974)

Teologiari buruzko 40 liburutik gora idatzi zituen teologoa...

"Teresak, pekatuan zabarkituaiko gure munduak bidea galdua zuelarik, haurtasun espiritualaren iturburu izkutuak aurkitu ditu".

29. Godfried Danneels kardinala (1933-)

Malinas-Brusselako artzapezpikua. 1996an honako hau idatzi zuen:

"Belgikako apezpikuontzat, Santa Teresak era argitsuari aditza ematen du santuek Jainkoaren zerik ederrenaz mintzatzen zaizkigula. Teresa Eliz Irakasle izendatzea Elizarentzat oso omiragarria izango dela uste dut".

30. **Albert Decourtray kardinala (1923-1994)**

Lyongo artzapezpikua. "Ez nuke Teresa Lisieuxeko ahaztu nahi, bihotz-bihotzez Eliz Irakasle izendatua izatea opa diodalarik"

31. **Gabriel Marie Garrone kardinala (1901-1994)**

Tolosako (Frantzia) artzapezpikua. Idatzi zituen liburu ugarien artean "Teresa Lisieuxkoaren sinesmena" argitaratu zuen 1968an. 1973an honako zioen:

"Izendatuko ote dute Santa Teresa noizbait Eliz Irakasle? Nik, inolazko zalantzarik gabe, baietz diot... Teresa sinesmenaren bihotzean hain ongi erroturik zelarik, bere fedeak betirako argitzen gaitu. Noizbait esango du Elizak, Teresari Eliz Irakasle deitu ahal izango zaiton. Kristau herriak, bere aldetik, dagoeneko epaitu du apaltasunez konfidantzan eta maitasunean".

32. **Hans Graer kardinala, benedictarra (1919-)**

Vienako artzapezpikua 1994an zioen:

"Eskerrak Ratio-aren emaitzagatik, eta Teresa Lisieuxekoari egiten dion aitamenagatik. Nik bertan erantsi ahal izango diot erregu bat Sinodoko Gurasoen nabierari, nolabait esatearren, eskari bat egiteko: beraren heriotzaren mendeurrena dela eta (1997ko irailaren 30) "bidetxoaren" irakalea izan zena Eliz Irakasle izendatua izan dadin"...

33. **Charles Journet kardinala (1891-1975)**

"Egia esan, Teresa Lisieuxkoarengan ez dago eklesiologia bat, baina, bai Elizaren izaera benetan bizi izan duenaren eza-gutza, teologoak ezin duelarik beraren diztira mirestu baino besterik egin."

34. **Nacis Jubany kardinala (1913-1996)**

Bartzelonako artzapezpikua. 1993an hau idatzi zuen:

"...Gaur egun, hain presazkoa izanik Ebanjelizazio berria, Teresa Lisieuxkoak, bere barne esperientzien bidez argituz, be-

netako 'maitasunaren Irakasle' biburtzen duen doktrinaren eredia eskaintzen du. Esana zuen berak: "ni hain txikia naitzenarren, igarleak, doktoreak bezala argitu nahi ditut arimak".

35. Jean-Marie Lustiger kardinala (1926-)

Pariseko artzapezpikua. 1995ean zioen:

"Harriduraz beterik ikusten dut Santa Teresak aurre hartu diola gure mende honen geldotasun eta astuntasunari. Guk uste genuen baino askoz barago joan da. Bere erara, garaiko mintzaira erabiliz, oso argi aurkeztu eta formulatu ditu egiak, beraien aberastasunak ez ditugularik oraindik ustiatu".

36. Martini kardinala, jesuita (1927-)

Milango artzapezpikua. 1997ko otsailean elizbarrutiko 156 apaizekin eginiko erromesaldian Teresa Lisieuxkoa Eliz Irakasle izendatzearen aldekoa zela adierazi zuen.

37. François Marty kardina (1904-1994)

Pariseko artzapezpikua. Beraren bizitzako azken ekintzetariko bat Santa Teresa Eliz Irakasle izendatzeko eskatzea izan zen.

38. Désiré Mercier kardinala (1851-1926)

Malinas-Brusselako artzapezpikua. Santaren espiritualitatea ederretsi zuen.

39. Lucas Moreira Neves kardinala, domingotarra (1925-)

Brasileko Apezpikuen Batzarreko burua. 1993an honako hau zioen:

"Nik Teresa Irakasle gisa ikusten dut, baina, Bizitzaren Irakasle, Maitasunaren Irakasle, Jaingoaganako maitasun, lagunurkoarenaganako maitasun, Elziarenganako maitasun gisa. Nik Teresa, Elizaren bibotzean maitasunaren bidez zein maitasu-

naren Irakasle den Elizako alaba gisa ikusten dut eta, adiera bonetan eskatzen diet Brasileko apezpiku anaiei Teresa Eliz Irakasle izendatua izan dadin Aita Santuari aurkezteko eskabidea sinatu dezatela”.

40. Adodato Giovanni Piazza kardinala, karmeldarra (1874-1957)

Veneziako patriarka. Teresa Lisieuxkoaren jarraitzaile sutsua izan zen; hainbat olerki egin zituen beraren ohoretan...

41. Paul Poupard kardinala (1930-)

Apaizen heziketari buruz honako aitorpena egin zuen Sindoan (1990):

“Utzi apaizgoa Santa Teresaren eskuetan”... “Santa Teresak mundu osoan zehar milaka apaiz bokazio sorrerazi ditu, berarengan beziketarako honako hauek aurkitu dituztela: a. mugarik gabeko Jesusen maitasuna eta Eltzaren maitasuna; b. oioitzaren eta misio unibertalaren barne-barneko esangura; c. kontenplazioaren eta egintzaren arteko lotura; d. maitasunaren eta konfidantzaren bide txikia, eguneroko bizitzan santutasunera daraman bidea hartzeko eredia”.

42. Joseph Ratzinger kardinala (1927-)

Federearen Irakasbiderako Kongregazioko prefektua. Hau idatzi zuen:

“Metanota egiteko baliabide erraza... Jainkoaren aurrean dugun eguneroko pazientzia eta Jainkoak gure begiradari diona, era oso erakarrian bizi izan zuen Teresa Lisieuxkoak azken mendeko azkenaldian. Birtutean heroi zirenak eredutzat hartzen zituen santutasun irudiaren ordeiz, berak “bidetxo” egunero Jainkoa entzutea, eta egunero Beragana joatea, proposatu ditu”.

43. Emmanuel Subard kardinala (1874-1949)

Bayeux eta Lisieuxko apezpikua, Pariseko artzapezpikua. 1940an zioen:

"Nire apezpikutzan Santa Teresari zor diodala uste dut"... "Teresaren misio atal bat ez dela oraindik burutu sentitzen dut. Frantziako Misioen lana hastean, santatxoa bere benetako bidean izango da; bertan ez zegoelako Jainkoaren eskuzabaltasunaren seinale handirik jarri nintzen lanean gogotsu zeregin horretan, eta Santa Teresa bertara lanera ekartzen".

Apezpikuak

44. *Guy Gaucher, karmeldarra (1930-)*

Santa Teresaren idazkien argitaratzailea. Hainbat idatzi du Santari buruz. 1992.ean zioen:

"Teresa agortezinak ez ditu bere izkutuak agerteraziko... Liburu honek betetzen lagunduko du, Elizarentzat eta munduarentzat "ebanjelizazio berriaren" une honetan grazia iturri izango delarik".

45. *Christoph Schönborn, domingotarra (1945-)*

Austriarra. Nazioarteko Teologia Batzordeko kidea. 1990ean zioen:

"Noizbait -laster izango dela uste dugularik- Teresa Eliz Irakasle izendatua izaten bada, argiak emango dizkie teologia irakasteko ardura dutenei, nahi izan zuen bezala".

F. ESPIRITUALAK

Hainbatek jaso izan dute Santaren eragin onuratsua, batez ere bere idazkien bidez. Hemen batzuk aipatuko ditugu bakarrik.

46. *A. Dodefroid Madelaine, premostratensea (1842-1932)*

Mondaye-ko abadiako nagusi izan zena.

"Erraztunez ibili obi da idazki Santuen eremu zabalean"... "Bere inspirazioa aparteko goi-arnasez bete da".

47). **Dom Vital Lebodey, trapensea (1857-1948)**

Espiritualitateari buruzko zenbait liburu, esaterako "Buru-uzte santua" (1919) idatzi zituena. *"Santutasuna lazturretan bilatu ondoren, otoitz-bidean, txikitasun santuan, seme-alaben obedientzian, eta buru-uzte santuan du"*.

48. **A. Lucien Paulot (1864-1938)**

Teresa Lisieuxkoari buruz idatzi zuen.

"Beraren doktrina ez da funtsezkoa bakarrik, zentrala, nolabait esateko, ardatzekoa baino. Santak, aurkezteko merezimendua, zabaltzeko argitasuna izan zuen. Haur lotsati batengan xalotasunak lortutako garaipena? Arima igarle goiztiar batengan izandako berebiziko intuizioa? Goitik jasotako argialdia? Baliteke guzti horiek batera izatea"

49. **A. Toussaint Vayssière, domingotarra (1864-1940)**

Santaren espiritualitatearen eragin sakona izan zuen:

"Santatxoak toki berezia dauka beti nire espirituzko lehentasunen artean".

50. **A. Gabriel Martin (1873-1949)**

Santaren espirituzko gaiet buruzko hainbat idazki dauzka.

51. **A. Marie-Vincent Bernadot, domingotarra (1883-1941)**

Teresari buruzko lehen ikerketa teologiko garrantzitsuak idatzi zituen.

"Teresa ez dela beti egokiro ulertua izan aitortu beharra dago. Badirudi oraindik ez dela guztiz aurkitu bizitza apal horren benetako oinarria osotzen duen zera... Teresatxo abizparen idazkiak doktrina mamitsu, sakon eta tradiziozkoz heterik daude".

52. **Pierre Fallaize, Maria Sortzez Garbiaren oblatoa (1887-1964)**

Misiolaria. Konfidantza handia zeukan Santarengan...

53. A. Jean D'Elbée, Bibotz Sakratuen Congregaziokoa (1892-1982)

Teresarenganako debozio sakona izan zuen. "Maitasunagan sinestu" (1969) liburuaren egilea.

54. Dom Édouard Roux, benedictarra (1896-1962)

Fontgombault-eko abata. Honako hau zioen:

"Santa Teresa ezagutu eta maitatu behar da: beraren garbitasun, apaltasun eta konfidantzazko maitasunaren ondorioz 'Ama Birjinaren mintatura' baita".

55. A. Maurice Zundel (1895-1975)

Suitzarra. Bere ministeritza txiroen artean burutu zuen apaiz intelektuala; hainbat idazkiren egilea... Sarri mintzatzen zen Santari buruz gogo-jardunaldietan.

"... Egin-eginean ere, unibertsalagoa edo, hobeto esanda, guztiz unibertsala den ikuspegi honek, Teresak munduaren larridura osoari eta beraren itzarote osoari dagokien mezua eskaintzen dion ikuspuntu honek, bete-betean baieztatzen du guk geuk Jaingoagan bizi dezakegun guzti hori..."

56. Dobotby Day (1897-1980)

Kristau federa etorritako ezkondua... Amerikako katolizismoan pertsonaiarik nabarmenetarikoa. Teresa izan zen bere santarik kutunena; Teresari buruzko *Therese, A life of Therese of Lisieux* liburuaren idazlea.

57. Ama Yvonne-Aimée de Jésus, religiosoa (1901-1951)

Santa Teresaren eragin handia jaso zuen. Txikitan "Arima baten historia" irakurri eta amri esaten zion:

"Hau da nire santa". 1932an bere erlijioso gazteei esaten zien: "Santa Teresak izan behar du zuen eredu. Berak hain ondo jakin bainu buru-uztezko, konfidantzazko eta maitasunezko bide-tik Jesus Jaunari osorik eskainita bizitzen..." Nagusi Jeneral ze-

larik honako hau esan obi zuen: "Santa Teresak eta nik oso maite dugu elkar".

58. Dom Gabriel Sortai, trapakoa (11902-1963)

Bellefontaineko abata eta zizterarren abata jenerala. Gazterik irakurri zituen Teresaren idazkiak, eta gazteak doktrina teresiarren arabera hezi zituen. 1948an zioen:

"Berarengan konfidantza osoa dut, Ama Birjinaren antza duela ikusten baitut... Berarekin erraza egiten da buru-uztea. Denak ulertzen duela ematen du. Beste santuekin, ostera, hainbat argitu behar izaten dut, eta hori oso korapilatsua da".

59. A. Victor Ston, karmeldarra (1909-1990)

Teresari buruzko oinarrizko liburu bat idatzi zuen: "*Teresa Lisieuxkoaren espirituzko errealismoa*" (1956). Honako hau idatzi zuen: "*Teresaren mistioa kristau guztientzat da interesgarria*".

60. A. Albert Marie Carré, domingotarra (1908-)

Teologia eta espiritualitateari buruzko hogeita hamar liburu baino gehiagoren idazlea... Santari buruzko hitzaldi asko egin zituen. 1988an zioen:

"Santa Teresa Jesus Haurrarenak, sakon-sakonean, Jainkoaren nahia betetzeko bizi izateko era bakarra hartzera bultzatzen nau (...) "Bizi izateko era bakarrak" existentziako itxurazko absurdoak argitzen dituen esan nahi du".

61. A. Jacques Laew (1908-)

Legegizon sinesgabea izan zena, geroago katolizismora (1932) aldatu zen. Domingotar egin ostean, Frantziako lehen apaiz langilea dugu. Hamabost bat liburu ospetsu argitaratu zituen. Teresaren eragina izan zuen konbertsio unean eta bitzta osoan zehar. "*Otoitza otoizlari handien eskolan*" liburuan kapitulu bat eskaini zion hurrengo hauek esanez:

"Gizateria mendebaldarren zabarkitasunaren, nekaduraren zein kristautasunaren deserrotzearen aurrean, Santa Teresa

Testamendu Zabarreko anawin-en izkututako iturbegietara garamatzan 'ur-biltzaille txikitxoak' (Père Daniélou-ren hitzak) izan da".

62. **Ama Teresa Calcuttakoak (1910-1997)**

Guraso albaniarrak izan zituen; Indiako naziotasuna eduki du. XX. mende honetan izan dugun kristau maitasunaren eredurik nabarmenena. Botoak egin zituenean (1931) Teresa izena hartu zuen, Teresa Lisieuxkoari, "*Jainkoaren loratxoari*" zion maitasunak bultzatuta; sakon-sakonetik bizi izan du Santaren espiritualitatea, eta bere alabei esan ohi zien: "*bark obizko zereginak ezobizko maitasunez egiten zituen*". Ama Teresa, berak munduan Teresa Lisieuxkoaren zeregina betetzen jarraitzen zuela uste izan du.

63. **A. François de Sainte-Marie, karmeldarra (1910-1961)**

Liburu batzuen egilea. Teresaren "eskuizkribu autobiografiakoak" (1956) argitaratu zituen. Zera zioen:

"Teresatxo, Bernanos-ek aipatzen dituen haur zerutiarren antzera etorri da gure artera. Notzbehinka Jainkoak Elizan sortuak izanik, beren esku txikiak une batez ixilik egonarazteko Irakasle-en abo agortezinetan sartu, eta apal eta txiki-une batez bitz egiten uzteko eskatzen dien horietakoa da. Jainkoaren goi-arnasak bultzaturik, 'Jainkoaren makaltasuna', Zakariasek bere kantikan aipatzen dituen barako "errukizko erraiak" aurkitu ditu".

64. **A. Marie-Dominique Philippe, domingotarra (1912-)**

Filosofiako dozena bat liburu inguru, eta teologia espiritua-lari buruzko beste hainbeste idatzi zituena. Honako hau zioen:

"Teresatxok, nolabait, apostolutza-zeregina izan du; Vatikanoko II.a gertatu aurretik Elizari eman izan zaion argiz beteriko pertsona nabarmena da. Jainkoak Elizan zer handiren bat egin nahi duen bakoitzean, igarle argitsuren bat ematen dio. Beharrezkoa izango da Vatikanoko II osoa Teresatxoren argipean ulertzea. Orduan ulertuko da Vatikanoko II.a"

65. A. Cbistian de Chergé, trapensea (1938-1996)

Tibhirine-ko (Algeria) trapako priorea. GIAk 1996ko maiatzaren 21ean, beste sei erlijioso lagunekin batera hila. Bihotzez maite zuen Teresa eta haren egunean, 1970ko irailaren 1ean egin nahi izan zuen erlijioso-profesioa.

G. TEOLOGOAK

Aipa ditzagun orain Teresa Lisieuxkoaren bizitza eta idazkien eragina izan duten teologo batzuk.

66. A. Gustave Desbuquois, jesuita (1869-1959)

"*Santa Teresa Lisieuxkoaren mezua*" (1933) liburuaren egilea. Santa Eliz Irakasle izendatzaren aldeko jardunetan saiatu zen.

67. A. Réginald Garrigou-Lagrande, domingotarra (1877-1964)

Teologo ospetsua. 1955eko gutun batean honakoa zioen:

"Berririo irakurri dut Santa Teresa Lisieuxkoaren bizitza, eta beti miretsi izan dut berak Espiritu Santuaren got-arnaspean izkutuko zer guztiez hizketa ulergarri batean mintzatzeko duen era, ezin dutelarik teologorik zorrotzenek ere ezer gaitzesgarriarik aurkitu".

68. A. Hyacinthe Petitot, domingotarra (1880-1934)

Santari buruzko liburu historiko-teologiko bat idatzi zuen (1925); geroago, beste hainbat idazlan garrantzitsu. 1932an zioen:

"... Hori dela eta, ezin izango da oso-osoa ulertu, bainbat mende geroago arte, gure Santak izandako eragin ugari eta mirengarria. Santa Teresa Jesus Haurrarena garai berri baten sustatzaile nagusia eta probidentziala izan dela aitortuko da. Historiagileek, San Agustinen edota Leon X.aren mendean izandakoaren antzera, beraren eraginpean hasi eta aurrera eramandako berbizkunde espiritualaz mintzatuko dira".

69. A. Erich Przywara, jesuita (1889-1972)

XX. mendeko teologorik handienetakoa. Urs Von Balthasar-en irakaslea izan zen. Santa Teresa Lisieuxkoaren eragina gozatu zuen. Bere bizitzan eraginik handienetakoa egindakoen artean aipatzen du Teresa Lisieuxkoa, hots, Newman, Agustín, Akinoko Tomas, Loiolako Inazio, Gurutzeko Jon eta, baita ere, Hölderlin eta Kierkegard bezalako ospetsuen artean.

70. A. Emile Mersch, jesuita (1890-1940)

Belgiarra; filosofiako irakaslea. Elizaren Gorputz Mistikoa" dituriko lanak ditu:

"Haurtasun espiritualaren hidetxoan teologiako altxorrak aurkitzen dira".

71. A. Bruno de Jésus-Marie, karmeldarra (1892-1962)

Teresa Lisieuxkoak erabateko eragina izan zuen beraren pentsamendu eta espiritualitatean. *Etudes Carmélitanes* aldizkariko zuzendaria izan zen. Maria Ines Jesusenari 1911n ziotson: "*Arima baten historia*" idazkiari zor ziola "anarkista, sozialista, positibista eta idealista" zelarik izan zuen krisialdi ondo konbertsioa.

72. A. Gabriel de Sainte Marie-Madeleine, karmeldarra (1893-1953)

Belgiar honek espirituzko teologiari buruzko lan garrantzitsuak ditu: "*Teresatxoren mezua*" (1924) liburua idatzi zuen.

73. A. Marie Michel Philipon, domingotarra (1898-1972)

Santari buruzko "*Santa Teresa Lisieuxkoa. Bide zeharo herria*" (1946) oinarritzko lana idatzi zuen. Teresaren espiritualitatearen eraginpean aritu zen.

"Haurtasun espirituala Jesusen ebanjelioa aurkezteko era berria da".

74. A. Emile Rideau, jesuita (1889-1981)

Hainbat idazlan idatzi zituen. Besterik beste *"Teresa Lisieuxkoa, natura eta gratzia"* (1973) liburuaren idazlea da.

75. Mgr. André Combes (1899-1969)

Hainbat idazki ditu Teresari buruz. Santaren gutunen argitalpena bideratu zuen. 1948an honako hau zioen:

"Santa bonen idazkiak trakurtzea, gizateria Jesusen Elizara ekartzen Aita Santuari laguntzeko gai den doktrina eskuratzea da" dio Aita Santuak"... "Jainkoak argitasun barrigarritz beteriko neskatxo apal honengan: martiri eta Maitasun errukietsuaren irakasle bat egin nahi izan du".

76. A. Stéphane Piat, frantziskotarra (1899-1968)

Santuen historiagilea eta teologoa. 1946an hurrengo hau idatzi zuen:

"Noizbait Benito Nursiako, Bernardo Chiarvauxko, Jon Gurutzeko, Inazio Loiolako, Frantzisko Saleskoaren ondoan jarriko dute, gizateriari Jaingoaganako bidea trakatsi dioten erlijioso jakintsu handien artean"

77. M. Albert Gelin, S.Sulpizioaren lagundikoa (1902-1960)

Bere idazkirik ospetsuena den "Jahweh-en txiroak" (1954) liburuan, Biblian hain oinarritzkoa den gai honen eta Santa Teresaren "haur izateko bidetxoaren" arteko kidesasun eta erlazioari buruz aritzen da.

78. A. Hans Urs von Baltasar (1905-1988)

Jesuita, 1988an kardinal izendatua. Mende honetako teologorik handienetakoa. Teresari buruz "Teresa Lisieuxkoa, misio baten historia" (1950) idatzi zuen. 1973an hau zioen:

"Oso sarri eta sakon aztertua izan den liburuxko hau, gutun batzuk eta esaera batzuk bakarrik utzi zizkigun bozta-bozta 24 urte zituen neska gazte honek. Baina, zenbat eta dedikazio han-

diago eskaini berari hainbat eta ugariagoak dira aurkitzen diren ikusmugak. Zalantzarik gabe, berari dugu santu handien ezaugarria: holakoak Jainkoaren mugagabetasunean bizi direla, baren betikotasuna aldibateko bizitzan istadutzen dutelarik”.

79. A. Philippe de la Trinité, karmeldarra (1908-1977)

Grenobleko semea. Santari buruzko hainbat liburu ditu. 1973an honako hau idatzi zuen:

“Nik uste dut, beste hainbatek bezala, oraindik zer bat falta dela Lisieuxko karmeldarra guztiz handiesteko, hots, Sienako Santa Katalina eta Avilako Santa Teresa bezala Eliz Irakasle izendatzea”.

80. A. Roberto Moretti, karmeldarra (1910-)

Teologia eta Espiritualitateko irakaslea. Santa Lisieuxkoari buruzko Italiako aditurik handienetakoa. 1973an idazten zuen:

“Teresa Lisieuxkoak zer asko ditu moderno eta gaurkotzat hartua izateko. Kristologiari buruzko aberastasuna ez da, benetan, txikienetarikoa... Ebanjelioan zehar Kristoren misterioa bain sakon ikusi duen Teresa gaitasun osoz mintza daiteke, eta beraren hitzak gaurko gizakiek eskatzen duten sinesgarritasun osoa dute”.

81. A. François-Xavier Durrwell, erredentziotarra (1912-)

Hainbat libururen egilea. Teresa Lisieuxkoaren espiritualitatearen eragipean bizi izan zen.

“Azken aldi honetan, Jainkoak argitasun izugarritz bizitzaz bandikako begirada eman zion kristau gazte bat izan dugu. Teresa Lisieuxkoa... Elizan neskatala bat izan nahi zuen bakarrik. Neskatala hau handia da Elizan irakasten dutenen artean”.

82. A. Louis Bouyer, Frantziako orotariokoa (1913-)

Protestantismoa utziz katoliko egina. Teresari buruz idatzi zuen “Pertsonaia mistiko femeninoak” (1989) deritzan liburuan.

83. A. Marie Dominique Moltiné, domingotarra (1918-)

Domingotarra teologia eta moraleko irakasle ospetsua. 14 libururen egilea. Teresari buruz aritzen da *Celui qui vient d'ailleurs - L'Innocent* liburuan.

"Teresaren zain egon behar izan da, oso-soan Ebanjeliaren neurriei dagokien zabaltasuneko espiritualitate mugimendua planeta mailan aurkitzeko"

84. A. Marie Josph Le Guillou, domingotarra (1920-1990)

Bere hainbat liburutan mintzo da Teresari, eta beraren espirituzko izateari buruz.

"Teresa Espirituaren deterako sakoneko zeraren sinboloa da. Bide iraultzaile modernoak gorpuzten diren une berean, gazte karmeldar batek bere burua maitasunari eskainiz eta buru-belarri osorik Jainkoaren esku jarritz, giza-askatasunaren doatn zoragarri hau agertzen du".

85. A. René Laurentin (1921-)

Misiologoa. Teresari buruzko bi liburu idatzi zituen. 1992. an zioen:

"Giza zientzia, inteligentziaren gidaritzapean lortutako behaketa eta interpretazioa baino ez da. Teresa Lisieuxkoak bi baldintza horiek betetzen ditu: teologo guztiek eduki nahi izango luketen Jainkoaren ezagutza zeukan. Berak, Jainkoarengana hurbiltzeko oso erraza, oso sakona, askorentzat, batez ere txiro eta apalontzat oso eskuragarria delako beste guztiak gainditzen dituen bidea proposatzen du. Labur esanda, Teresaren izketuko zera Espiritu Santuaren eskutan osorik jartzea izan zen. Beraren zientzia Espirituaren zientzia bera izan zen. Berak aparteko era zuzen eta gardenean bizi, esperimintatu eta jakinarazi du, eta ulertu egin du kristau herriak".

86. A. Valentín Maca, karmeldarra (1924-1988)

Santaren jarraitzailea. Gogotsu jardun izan zuen Eliz Irakasle izenda zezaten. Teresaren doktrina nabarmendu zuen, Vatikanoko II.eko mariologiarekin harmonian jarritz.

87. A. Bernard Bro, domingotarra (1925-)

Hogeita hamar liburuki baino gehiago idatzi ditu, batzuk Teresari eskainiz:

"Noiz baztertuko ote du errukia gaitzat hartuta minizatzea? Teresarentzat errukia ez da "gai" buts bat, Jainkoaren errealtate sakonena baino... Teresak Jainkoaren zerik bikainena, eta errebelazioko izkutuko guztietan sartzeko ateko giltza errukia dela ulertu du. Irakasle izendatzeak teologoet errukia ikusteko era artezten lagunduko diela uste dut".

88. A. Pierre Descouvemont (1927-)

Kanbraiko elizbarrutiko apaiza. Hainbat liburu ditu Teresari buruz.

"Zer-nolako oreka Teresaren pentsamenduan! Berak gure eta gure senideen salbamena lortzeko Maitasunarengan konfidantza osoa jartzera animatzen gaitu; baina, era berean, edozein kietismo baztertuz, sakrifizioarako abagunerik ez galtzera animatu ere bai" (1978)

89. P. Conrad De Meester, karmeldarra (1933-)

Belgikarra. Teresari buruzko hainbat liburu ditu. 1972an honakoa hau idatzi zuen:

"Beti lilura sortzen du berarengan zer guztiak bizitasunez eta uste sendoz beterik ageri direlako. Eta berak etengabeki erabiltzen dituen kontzeptuak: aita, maitasuna, txirotasuna, senide-arte maitasuna, buru-uztea, esperantza, ... hain dira unibertsalak, edozein pertsonak ezagutzen dituela".

90. A. François-Marie Létel, karmeldarra (1948-)

Teologiako irakaslea; hainbat liburu ditu. Teresa Lisieuxkoari buruzko kristologia bat gertatzen ari da.

H. FILOSOFOAK

91. **Henri Bergson (1859-1941)**

XX. mendeko filosofian aparteko eragina izan zuen filosofo frantsesa. Gogokoan zuen mistikoa Teresa Lisieuxkoa zela aitortu zion alaba bati.

92. **Maurice Blondel (1861-1949)**

Bergsonen eragina izan zuen. Beraren idazkariak, Teresa Lisieuxkoak liburua sortzen zionsola aitortzen du.

93. **Jacques Maritain (1882-1973)**

Katoliko egin zen filosofo frantsesa. 1966an hurrengoa idatzi zuen:

"Hemen Teresa Lisieuxkoaren testigantza eta misioaren garrantzia aipatu beharra dago. "Bidetxo" hau egitarako bide handi bat da, eta heroikoa, guztiz ezkututzen baitu apaltasunik handienaren pean daukan handitasuna".

94. **Jean Guitton (1901-)**

Filosofo katolikoa; Paulo VI.aren adiskide mina. Besterik beste, idazlan garrantzitsu bat idatzi zuen Teresari buruz 1954an: *"Teresa Lisieuxkoaren buruargitasuna"*.

95. **Emmanuel Mounier (1905-1950)**

Esprit (1923) aldizkaria martxan jarri zuen filosofo katolikoa. Filosofian eragin handia izan du.

96. **Jean Daujat (1911-)**

Zientzilaria eta filosofoa. Hogei liburutik gora ditu; besterik beste: *"Teresa Lisieuxkoa maitale sutua"* (1986).

"Santa Teresa Lisieuxkoa... nire espirituko irakasle izan dut hasieratik orain arte, eta nire ezpirituzko magisteritzarena, eta be-

rari zor diot, era berean, eskerronik esanezinezkoenaz haurtasun espiritualak - eta hau 91 urte ditudala- eta maitasun errukitsuaren jarria izatea".

I. IDAZLEAK

Orain Santaren eragina jaso eta asko estimatu duten idazle ospetzu batsuk ekarriko ditut gogora. Idazlan hau gehiegi ez luzatzeko izenak jasoko ditut bakarrik:

97. *Paul Claudel (1868-1955)*
98. *Lucie Delarue-Mardrus (1874-1944)*
99. *Giovanni Papini (1881-1956)*
100. *Marie-Noël (1883-1967)*
101. *François Mauriac (1885-1970)*
102. *George Bernanos (1888-1948)*
103. *Marcel Moré (1888-1969)*
104. *Stanislas Fumet (1896-1983)*
105. *John C.H. Wu (1899-1986)*
106. *Julien Green (1900-)*
107. *Ida Friederika Görres (1901-)*
108. *Daniel Rops (1901-1965)*
109. *Raymond Queneau (1903-1976)*
110. *Giorgio Papasogli (1906-1996)*
111. *Maxence Van der Meersch (1907-1951)*
112. *P. Thomas Merton (1915-1968)*
113. *P. Jean-François Six (1926-)*
114. *Fernand Ouellette (1930-)*
115. *Catherine Ribot (1947-)*
116. *Sven Stolpe*
117. *Ingemar Leckius y Majken Johansson*

J. POLITIKOAK

- 118. *Charles Mauras (1868-1952)*
- 119. *Marc Sangnier (1873-1950)*
- 120. *Jean Le Cour Grandmaison (1896-1974)*
- 121. *Augustin Ibazizen (1898-1983)*
- 122. *Giorgio La Pira (1904-1977)*

K. ARTEAK ETA KOMUNIKABIDEAK

Batez ere Frantzia.

Artistak: Edith Piaf, Robert Hossein, Michael Lonsdale, Brody Smith, Ierné Lamy, David Clair, Brigitte Fossey, Évelyne Bouix, Olivier Messiaen, John Taverner, Céline Martin, Georges Desvallières, Maurice Denis, Henri Waroquier, Albert Servaes, Rodophe Duguay, P. Marie-Alain Douturier, Isabelle Rouault, Alfred Manessier, Nicolas Greschny, Marie-Bernard, E. Manfrini, Lambert-Ruky, Turet...

Antzerkia: Henri Ghéon, Gilbert Cesbron, Geneviève Bailac, Jean Favre, Catherine Cadol, René Fix, Daniel Facérias, Peter de kemel...

Zinea: Georges Pallu (*arrosa hostobakandua*, 1927, 1935), Julian Duvivier (*Teresa Martinen bizitza miresgarria*, 1929), Daniou (dokumentala, 1932), Maurice de Cnonge (*Teresa Martin*, 1939), Philippe Agostini (*Teresa Lisieuxkoaren benetako aurpegia*, 1962), Paul de Saint-André (*Auzia Vatikanon - Santa Teresa Lisieuxkoaren bizitza*, 1952), Alain Cavalier (*Teresa*, 1986), Jean Daniel Jolly Monde (*Santa Teresa Jesus Haurrarena, Jainkoaren bibotzaren oihartzuna*, 1997)...

Egunkariak: Ehun urte luze hauetan zehar Teresa mundu osoko hainbat eta hainbat egunkaritan agertu izan da; Frantziako prentsan bakarrik, 1887-1940 urteen artean, 1100 izenburupean...

Aldizkariak: Teresari buruzko hainbat idazlan argitaratzeaz gainera, hainbat aldizari daude berari eskainiak, Frantzia zein

beste estatu batzuetan; horrela, esaterako, Alemania, Erresuma Batu, Belgika, Brasil, Kanada, Kolonbia, Egipto, India, Irlanda, Italia, Peru, Polonia, Portugal, U.S.A., Ukranian,...

Telebista: Izan dira emanaldiak telebistan ere, batez ere Frantzian, vg.: *Santa Teresa Jesus Haurrarena* (Jean Marcilla), *Santa Teresa Jesus Haurraren prozesua* (Marcelle Maurette, 1961), *Etxe bat, historia bat: S. Teresa Lisieuxkoa* (Sarah Hellings, 1983), *Teresa Lisieuxkoa eta mundua* (Gérard Bonne-maison, 1993), *Teresa superstar* (M. Mauger, 1997).

Bideoak: Frantzian zazpi bideo, gutxienez, daude berari buruz. Espainian ere hadira pare bat.

Disko eta Kaseteak: Frantzian 12 disko; 25 kasetetik gora eta musika-audioak...

Diapositibak, Irratia, Internet...

II. TALDE ETA ERAKUNDEETAN

A. BIZITZA SAGARATUZKO INSTITUTUAK

Santa Teresaren eragina hain handia izan denez biziera sagaratudun Institutu, apostoluzta-bizieradun Elkarte, eta abarretan, ezinezkoa gertatzen da behar den eran deskribatzea.

B. ERLIJIOSOEN KONGREGAZIOAK

Teresak eragina izan du mundu zabaleko erlijiosoen hainbat institutu eta kongregaziotan; beraren espiritualitatea beraietan txertatu da. Halako erakunde batzuk aipatuko ditut, eraginari buruzko gora-beherak aztertzerako gabe, ezpaitut luzatu nahi idazlan hau:

I. Afrika

1. Institut des Soeurs Oblates Catéchiste, Petites Servantes des Pauvres (OCPSP). Benin.
2. Congrégation des Soeurs Bene - Terezija. Burundi.
3. Congregation of the Sisters of saint Therese of the Child Jesus. Kamerun.
4. Gongregation of Theresian Sisters. Malawi.
5. Gongregation of Theresia Sisters. Tanzania.
6. Gongregation of Saint Therese's Sisters Nyaigando. Tanzania.
7. Gongregation of Banyatereza Sisters Virika. Uganda.
8. Congrégation des Soeurs Thérésiennes. Zaire.
9. Soeurs de Sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus. Zaire.
10. Congrégation des Soeurs de sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus. Zaire.
11. Congrégation des Soeurs de sante Thérèse de l'Enfant-Jésus. Zaire.
12. Congrégation des Soeurs de sante Thérèse de l'Enfant-Jésus. Zaire.
13. Soeurs de sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus. Zaire.

II. Amerika

14. Missionerías de Santa Teresinha. Brasil.
15. Hijas de Nuestra Señora de las Misericordias. Colombia.
15. Hermanas Misioneras de Santa Teresita. Colombia.
16. Hermanas Cotemplativas de Santa Teresa del Niño Jesús. Colombia.
17. Petites Soeurs de Notre-Dame du Sourire. Kanada.
18. Petites Soeurs de Sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus. Haiti.
19. Petits Frères de Notre-Dame du Sourire. Haiti.
20. Misioneras Carmelitas de Santa Teresa del Niño Jesús. México.
21. Misioneras de Santa Teresa de Lisieux. Mexico.
22. Misioneras Eucarísticas de Santa Teresita. Mexico.
23. Carmelite Sisters of saint Therese of the Infant Jesus. USA.

III. Asia

24. Congregation of Theresian Sisters. Txina.
25. Theresian Sisters. Txina.
26. Theresian Sisters. Txina.
27. Congrégation Maronite des Soeurs de sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus. Libano.
28. Sisters of the Little Flower of Bethany, Bethany Convent. India.
29. Little Flower Congregation (CST Brothers). India.
30. Congregation of Saint Thérèse of the Child Jesus. India.
31. Missionary Sisters of saint Thérèse (MSST). India.
32. Sisters of Jesus Jesus Bhavan. India.
33. Little Sisters de Saint Thérèse of Lisieux. India.
34. Missionaries of Little Flower. India.
35. Apostolic Carmel. India.
36. Congregation of the Mother of Carmel. India.
37. Missionary Catechists of saint Thérèse of the Infant Jesus. Filipinak.

IV. Europa

38. Theresienschwestern vom Katholischen Apostolat. Alemania.
39. Misioneros de la Esperanza. Espainia.
40. Institución "Villa Teresita". Espainia.
41. Missionaries de la Plaine. Frantzia.
42. Oblates de saint Thérèse de l'Enfant-Jésus. Frantzia.
43. Frères Missionnaires de saint Thérèse de l'Enfant-Jésus. Frantzia.
44. Piccole Suore di Santa Teresa del Bambino Gesù. Italia.
45. Carmelitane Missionarie di Santa Teresa del Bambino Gesù. Italia.
46. Discepolo di Santa Teresa del Bambino Gesù Istituto "Migliaccio". Italia.
47. Piccola Famiglia di Santa Teresa del Bambino Gesù. Italia.

48. Sacerdoti Oblati di Santa Teresa del Bambino Gesù. Italia.
49. Suore Carmelitane Minori della Carità. Italia.
50. Ancelle di Santa Terese del Bambino Gesù. Italia.
51. Zgromadzenie Sióstr. sw. Teresy ad Dzieciatka Jezus. Polonia.
52. Sióstr. Karmelitanski Dzieciatka Jezus. Polonia.

V. Ozeania

53. Sister of Saint Therese. Papua Guinea Berria.

Ondorioa

Zerrenda honetan erlijiosoen 54 institutu edo kongregazio ageri dira honela banatuta: 13 Afrikan, 12 Amerikan, 14 Asian, 15 Europan, 1 Ozeanian.

C. Institutu sekularrak

1. Institut séculier (fémenin) Notre-Dame du Carmel. Begica.
2. Vita et Pax. Espainia.
3. Deus Caritas. Frantzia.
4. L'Institut Notre-Dame de Vie (et son Studium). Frantzia.
5. Compagnia di Santa Teresa di Gesù· Bambino. Suitza.

D. Eliz mugimenduak

1. Teresaren zaindaritzapeko "Obrak".
2. Elkarte berriak:
 - L'Arche.
 - Communauté de l'Emmacuel.
 - Communauté des Beatitudes.
 - Communauté du chemin neuf.
 - Amitié-Esperance.
 - Rehjouis-toi.
 - Verbe de vie.

Mission Theresienne.
La Ligue Missionnaire Cherupushpa
Belgikan beste talde batzuk daude.
Tiberiade
Piccola Famiglia di Santa Teresa di Gesu Bambino.
La Communauté d'Gennesaret.
Famille Missionnaire "Donum Dei".
La Communauté de la Croix Glorieuse.

III. GERTAKARIAK

Atal honetan, batez ere, teologiako mintzaldi eta kongresuei loturiko erlijio, kultura eta zientzia alorreko gertakariak biltzen ditut:

1. Kongresu teresiarra, Lisieux, 1932.
2. Estatuko XI. Eukaristi Kongresua, Lisieux, 1936.
3. Institutu Katolikoaren Kongresu Teresiarra, Paris, 1947.
4. Estatuko Kongresu Teresiarra, Paris, 1947.
5. Mendeurreneko Mintzaldia, Paris, 1973.
6. Milwaukee-ko Mintzaldi Teresiarra, USA, 1988.
7. Notre-Dame de Vie-ko Kongresua, Venasque, 1990.
8. Kinshase-ko Nazioarteko Kongresua, Zaire, 1996.
9. Teresianum-eko Aste Teresiarra, Erroma, 1996.
10. Mendeurreneko Nazioarteko Mintzaldia, Lisieux, 1996.
11. Domingotarrak eta Santa Teresa Jesus Haurrarena, Paris, 1997.

1997ean hainbat mintzaldi dira egiteko herrialde askotan; batez ere Notre-Dame de Vie-ko Institutu sekularrean (Frantzia, 19-22/X/1997), Tolosako (Frantzia) fakultatean (Santa Teresa Jesus Haurrena eta XX. mendeko teologoak), Sylvaneès-eko abadian (Frantzia, 27-29/X/1997), Bamberg-en (O. Carmin., Alemania), Polonian, Suitzan, Kolonbian, Belgikan,...

IV. BESTE ERAGIN BATZUK

1. Misioak.

Berak, misio katolikoan zaindari izanik, hainbatean markatu du misio-ideiaren garapena, batez ere Afrika eta Asian.

2. Apaiz eta erlijioso bokazioak

Beraren presentziak, batez ere eskaintzen duen jarraibideak eta doktrina erakargarriak, hamarkada batzuetan apaiz eta erlijioso bokazioen eklosioa sortu izan du Elizan.

3. Herritarren debozioa

Teresa Lisieuxkoaren kultua batez ere herritarren debozioan garatu da, eta hori, era bereziz dohatsu eta santu izendatu zuten garaietan.

Herritarren debozio horren adierazgarri ditugu berari eskainitako kultu-etxeak. Teresari eskainitako 1605 **kultu leku** daude; eta honela banatuta ageri dira:

1. Basilikak: 8.
2. Katedralak: 10.
3. Santutegiak: 13.
4. Elizak: 1082.
5. Kaperak: 492.

Erromesaldiak: kontaezinak. Esaterako, mendeurreneko urtean, prestakuntza gisa, hau da, 11 hilabetetan, 1995eko azarotik 1996ko irailera, 300 erromesaldi ofizial izan ziren hainbat lekutatik eginak.

4. Ekumenismoa

Teresa, santa unibertsala, Eliza katolikotik kanpora ere, batez ere ortodoxoen eta anglikanoen artean maitatua eta benetua da. Louis Bouyer, ekumenismoaren gaitu ospetsuak, kristau konfesio ezberdinetan duen eragina dela eta, "ekumenismo teresiarra" aipatu du.

Eta, era berean, oso nabaria da bere presentzia kristau herri-
tik kanpo ere. Oso maitatua da musulmanen artean, era bere-
zian emakumeen artean, berarengan Allah-ren alaba ikusten
baitute, eta berarengana jo ohi dute otoitzean. Afrikan, esatera-
ko, Teresaren doktrinak musulmanen eta kristauen arteko el-
karrizketa bideratu du. Eta ekumenismoari dagokionean naba-
ria da beraren eragina Ekialde Urrunean ere...; gogora dezagun
John Ching Hsiung Wu idazle txinarra, Teresarengan aurkituta-
ko maitasun zientziak liluraturik kristau egin zena.

J. Urkiza - P. Uribarren